# ASIKO NAIZ

Asiko naiz oraingoan,
pekatariak,esaten,
zergatik dagoan Jaungoikoa
gizon egiñik Belen'en.
Bein batean
txindurri bat
panparroikerian zebillen:
-Ni bezain aundi nor omen?
Ja,ja,ja-ja,ja-ja,ja-ja,ja-ja,jai,
ja-ja-ja,ja-ja,ja!

Asiko naiz oraingoan,
pekatariak,esaten,
zergatik dagoan Jaungoikoa
gizon egiñik Belen'en.
Bein batean
astotxo bat
panparroikerian zebillen:
-Ni bezain jakintsu nor omen?
Ja,ja,ja-ja etab.

Asiko naiz oraingoan,
pekatariak,esaten,
zergatik dagoan Jaungoikoa
gizon egiñik Belen'en.
Bein ollo xar ~~lepo-soil-bat~~
lepo-soil bat
panparroikeŕian zebillen:
-Ni bezain apain nor omen?
Ja,ja,ja-ja etab.

Asiko naiz oraingoan,
pekatariak,esaten,
zergatik dagoan Jaungoikoa
gizon egiñik Belen'en.
Bein batean
gizontxo bat
panparroikerian Belen'en
Jaungoiko nairik zebillen.
...........................
Oŕa zergatik Jaungoikoa gizon
egin dan Belen'en.